

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Martxoaren 5eko 51/2019 Foru Agindua. Otsailaren 28ko 48/2019 Foru Aginduaren hutsen zuzenketa, zeinak martxoaren 14ko 54/2018 Foru Aginduak aurreikusitako ondore faserako deia egiten duen. Foru Agindu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lanpostuak betetzeko 1/2018 lehiaketarako deia egin zen

Otsailaren 28ko 48/2019 Foru Aginduaren huts bat antzeman da, zeinak martxoaren 14ko 54/2018 Foru Aginduak aurreikusitako ondore faserako deia egiten duen. Foru Agindu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lanpostuak betetzeko 1/2018 lehiaketarako deia egin zen. Honako hau da zuzenketa:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua xedatutakoarekin bat etorriz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Otsailaren 28ko 48/2019 Foru Aginduaren I. Eranskinean erantsitako ondoko lanpostu hau baztertzea, 1/2018 lehiaketarako deitutako lanpostu hutsa izateagatik:

– 57.010. Egoitzako monitoreak, 80.2.03 3 02 azpiunitatera atxikia, Basoa Egoitza.

Bigarrena. Honako Foru Agindu hau ALHAO argitara ematea.

Hirugarrena. Foru Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, horri lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 5a

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua
M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO